Sostengatzea

Selene Maraña
Hondurasen jaioa, 1998an
2007an adoptatua, Gipuzkoan

Zortzi urte nituela adoptatu ninduten. Nire behin betiko familiara iritsi aurretik, harrera-familia batean izan nintzen lehenik, eta, gero, Euskal Herrira etorri nintzen nire adopzio-amarekin, Begoñarekin; guraso bakarra zen, eta ez erraza eta ez ideala ez zen amatasun batean murgiltzeko erabakia hartu zuen. Adopzio hura ez zen izan salbazio bat, ezta ipuin gozo bat ere: prozesu bat izan zen, eta, prozesu hartan, elkarrengana egokitu behar izan genuen etengabe, eta elkarri galdera asko egin, eta elkarrengandik ikasi. Ni ez nintzen orri zuri bat, eta bera ez zen heroi bat. Lotura bat eratu nahian zebiltzan bi pertsona ginen.

Begoñak gauza funtsezko bat eskaini zidan: presentzia. Batzuetan asmatu zuen, eta beste batzuetan ez, edozein amak bezala. Baina hor egon zen. Eta hori, denborarekin, nahikoa izan zen nik modua izan nezan hazteko, hanka sartzeko, eta, aurrerago, kontzientziaz ama izateko.

Begoñak gauza funtsezko bat eskaini zidan: presentzia. Batzuetan asmatu zuen, eta beste batzuetan ez, edozein amak bezala. Baina hor egon zen

Oso txikitatik, ama-sen zolia izan dut. Beti atsegin izan ditut umeak, eta beti jakin dut haiek zaintzen. Orain, atzera begira, irudipena dut babes emateko eta lagun egiteko nahi horrek zerikusia izan duela neure istorioarekin: nik behar izan dudan hori besteri eskaintzeko premiarekin.

Hemezortzi urterekin geratu nintzen haurdun lehenengoz. Nire bikotekidea ez zegoen prest, eta nik ez nuen babesik, ez amarenik eta ez beste inorenik. Abortatzea erabaki nuen. Esperientzia gogorra izan zen, isilpekoa, eta arrasto sakona utzi zidan.

Niretzat ez zen izan hankasartze bat, baina bai galera bat. Eta horrek susmo bat berretsi zidan: nire nortasunaren parte funtsezko bat zela amatasuna.

Handik urtebetera, berriz geratu nintzen haurdun. Emozio bereziz gogoratzen dut 2018ko apirilaren 4a. Kontsulta hartatik irten nintzenean, ulertu nuen ama izatea ez zela erraza izango niretzat, baina bai saihetsezina. Orduko hartan, bikotekideak babesa eman zidan, eta Begoña, nahiz eta hasieran pixka bat kostatu zitzaion –ni gaztea bainintzen oso–, berriz ere hor egon zen, bere moduan, bere zalantza eta guzti, adopzio-ama batek ikasitako guztia gogoan, alaba ere ama izatear zela ikusiz.

Lehen haurdunaldian oso indartsu sentitu nintzen. Nabaritzen nuen konektatuta nengoela bai nire gorputzarekin eta bai neure buruarekin. Prestalan handiak egin nituen erditzen nintzenerako, erditze naturala izatea nahi bainuen, beldurrik gabea. Eta halakoxea izan zen. Abenduaren 4an erditu nintzen, 09:36an, epiduralik gabe. Orduan ezagutu nuen Nasya, nire lehen alaba. Egun hartan ulertu nuen lotura ez datzala biologian, baizik presentzian, zaintzan eta konpromisoan. Baina hori, egia esan, lehendik ere ikasia nuen, oharkabean, neure adopzioaren beraren bitartez.

2020an geratu nintzen haurdun bigarren aldiz, berariaz horren bila ez nenbilela, eta bizi-une konplikatuxeago batean. Haurdunaldi zaila izan zen, hala fisikoki nola emozionalki. Zalantzati ibili nintzen, beldurtuta ere bai, eta gertakari batek sakon markatu ninduen: egun batean, odoletan hasi nintzen ugari, eta umea galtzen ari nintzela pentsatu nuen. Orduantxe, barne-erabaki bat hartu nuen, argia eta garbia: kreatura hura babestuko nuela, inguruan zernahi gertatzen zela ere.

Geruzak

Erditzea ere ezberdina izan zen, eragin egin baitzidaten erditzea, eta beldurrez egon bainintzen, bakarrik; ospitaleko esperientzia gogorra izan zen, eta ez nuen behar adinako babesik izan. Azkenean, epidurala eskatu nuen, eta dena arrapaladan gertatu zen: 18:08an, nire seme Asher ezagutu nuen.

Luze gabe, ordea, jaioberrien atalean sartu behar izan zuten, ikterizia larri batek jota. Bizipen hark nire istorioaren geruza ugari nahasi zizkidan: loturen hauskortasuna, galtzeko beldurra, esperoa. Hilabeteren buruan, azkenean, etxera itzuli ahal izan ginen.

Gaur, Nasya neska arduratsua da, lotsatia eta bizkorra; Asher, berriz, mutil maitekorra, mugitua eta samurra. Ni emakume adoptatu bat naiz, eta nire amatasuna modu kontzientean mamitu dut, nire guraso biologikoenganako inolako herrarik gabe eta nire istorioak erakutsi didanarengatik esker on-onez, baita minean ere.

Nire ama Begoñak, bere mugak jarriz eta konstantziaz jokatuz, irakatsi zidan ama izatea ez dela salbatzea, baizik sostengatzea. Eta beharbada horregatik esan dezaket gaur nire amatasunak ez duela nire adopzioa ezabatzen, baizik haren jarraipen bat dela. Ume Alaiak 25 urte bete dituen honetan, nire istorioa ez da beste istorio askoren arteko beste bat baizik, baina istorio horiek guztiak bat datoz egitate funtsezko batean: zaintzak, benetakoa baldin bada, eraldatu egiten duela, miraririk promestu gabe.

